

**A I T A   S A N   I G N A Z I O - R I**

ERREGUZKO KANTACHOA.

¡San Ignazio  
Euskaldun danen  
Bitarteko onen  
    Zerana!  
Igo bedi gaur  
Oso sutuba  
Nere erreguba  
    Zugana.

Odeyaz gora  
Euzki-argiyak  
Ta izar guziyak  
    Pasarik,  
Eskale gaude  
Zure aurrian  
Zeru erdian  
    Jarririk.

¡San Ignazio  
Loyolakoa!  
Alta gozoa  
    Zaitugu,  
Gure alde, bai,  
Bear dezu ari:  
Egiñ Jaunari  
    Erregu.

Begira, nola  
Mundu tristean  
Neke artian  
    Gabiltzan,  
Zeñ gure kontra  
Etsai-arruak  
Amorratuak  
    Dabiltzan.

Zure laguntza  
Izan dezagun  
Garai ditzagun  
    Etsayak;  
Eskayozkatzu  
Jaungoikoari  
Gutziz ugadi  
    Graziyak.

Graziya oyek  
Azkar isuri;  
Betor, bai, guri  
    Lasterren;  
Intz eder nola  
Goitikan bera  
Lurra poztera  
    Datorren,

Jardungo gera  
Indar oyeikiñ  
Etsai danekin  
    Gogorki;  
Danok irtenik  
Kristau anaiyak  
Garailariyak  
    Ederki.

Garailariyak  
Emen munduban,  
Gero zeruban  
    Jarteko,  
Zere ondoan  
Jauna maitatzen  
Eta gozatzen  
    Betiko.

JOSÉ IGNACIO DE ARANA.